



**3/2004 FORU ARAUA, OTSAILAREN 9KOA, LURRALDE HISTORIKOKO
TOKI ERAKUNDEEN AURREKONTUEI BURUZKOA.
(ALHAOKO 21 zk., 2004ko otsailaren 18ko)**

Testu bateratua

HITZAURREA

Foru arau honek ekonomia jarduera bizkor eta eraginkorraren beharrezan araberako aurrekontu, kontabilitate eta kontrolerako eremua ezartzen du Lurralde Historikoko toki administrazioentzat, eta aurrekontuen prozeduran eta kontabilitate publikoari buruzko arloan Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak onetsitako irizpide homogeenak aplikatzea errazten die.

Urteko aurrekontua toki administrazioaren zuzentegitarauaren adierazpena da eta bertan haren organismo autonomoen eta sozietate publikoen aurrekontuak sartzen dira (sozietate publikoak dira sozietatearen kapitalaren edo funtsaren %50 baino gehiagoko partaidetza dutenak).

Foru arau honek ez du definitu aurrekontu eredu bakar eta itxia; aitzitik, nahikoa malgua da eta aplikatu daitezkeen arautegiaren zati handi bat erakunde bakoitzak, autonomia osoz, urtero onesten duen Aurrekontuak gauzatzeko Arauak definitzen du, agiri hori aurrekontu kontrolaren sistemaren giltzarri bihurtuz. Nolanahi ere, kontrol sistema osoa araupetu da, aurrekontua berearazteko araurik ez dagoenerako komeni delakoan.

Aurrekontua osatzen duen funtsezko beste agiri ekonomiko bat Ekonomia-Finantzazko Txostena da; txosten horretan aurrekontua orekatuta dagoen aztertzen da, hots, sarrerak aurreikusitako gastuei aurre egiteko beste direnez. Osagarri gisa, geroagoko ekitaldietarako baimentzen diren gastuei (konpromiso- kredituak) aurre egiteko finantzaketa nahikoa den aztertzen da, eta horrela epe ertaineko ekonomia plangintzarako funtsezko elementua sartzen da.

Eginkizun egitaraua, beherengo mailan baino ez bada ere, administrazio guztietan jarduketa egitaraukako aurrekontua prestatu beharri emandako erantzuna da. Eginkizun egitarau bakoitza ekitaldian lortu beharreko helburuak eta jarduera hori bideratuko duten ekintza zehatzak definituta dituen aurrekontuko eginkizun sailkapenaren multzoa da. Aurrekontu egitarauaren kontzeptu zurrunen aldean, eginkizun egitaraua orokorragoa da eta hurbileko jarduerak hartzen ditu bere barruan eta beraren bidez udalerrri handiek bideak zabalik dituzte egitaraukako benetako aurrekontuak garatzeko.

Aurrekontua, kontrolerako tresna izateari utzi gabe, nahikoa malgua izan behar da ekitaldian zehar behar diren moldaketak betekizun formalistegiak ez eragozteko. Lehen mailan, hori gastuetarako administrazio bakoitzak zuzen

kontabilizatzeari kalte egin gabe defini dezakeen kredituen lotura maila liberalizatuz lortu da. Gainera, kredituak aldatzeko sistema bizkorra ezarri da eta jendaurreko informazioaren betekizunak –beti gelditasunaren eta frogatu gabeko lan eranskarriaren iturri izan direnak– ekonomiaren aldetik nabariak diren kasuetarako bakarrik gorde dira. Ez dago, horretan, kontrolaren kalitatearen galerarik; izan ere Kontu Orokorrak urteko ekonomia datu guztiak jendaurreratzen ditu eta bai korporazioak bai hiritarrek egindako jardueraren azken balorazioa egiteko oinarrizko agiria da.

Honela, eta beti ere administrazio bakoitzaren autoerregulazioari lotuta, aurrekontuetako partiden arteko kreditu-transferentziak, sarrera berezietarako kreditu-gaikuntzak eta aurreko ekitaldietako kredituen txertaketak ez dira argitaratuko. Gainerako aldatetarako, kreditu erantsi gisa definituta daudenetarako, antzeko prozedura bati ekiteko bidea ematen da zenbatekoak txikiak direnerako.

Kontuhartze-kontrola Arauak proposatzen du, ohiko *a priori* lege kontrola gainditzeko duen ikuspegitik, administrazio egintzen ekonomia zentzutasunari buruzko informazioa eta *a posteriori* egin beharreko lege, ekonomia, finantza eta antolaketa kontrolen hedapena sartuz. Honela, funtzio publikoaren barne auditoretzaren ideia sartu da, erabakiak hartzen oso lagungarria izango delakoan.

Azkenik, foru agindu honetan ezarri da aurrekontu egiturari eta kontuen planari dagokionez Euskadiko gainerako administrazioekin homogenotuta garatuko dela; horrela, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko Legean finkatutako asmoa beteko da: informazioaren ondoretarako, euskal alor publiko osoaren bateratzea ahalbidetzen duen eredia lortzea.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Foru arau hau Lurralde Historiko osoan aplikatuko zaie toki erakundeei eta beraien organismo autonomoei eta beraien menpeko sozietate publikoei.

Halaber, udalerriaz beherako eremuko erakundeei ere aplikatuko zaie, beraien berezitasunak kontuan hartuta.

Aurrekontu eta kontabilitate araubideari dagokionez, organismo autonomoak merkataritzako organismo autonomoak edo administrazio organismo autonomoak izan daitezke, nolakoak diren egiten dituzten jarduerak: merkataritzakoak, industriakoak, ekonomikoak, finantzen arlokoak edo, oro har, merkataritzakoak, edo bestelakoak, hurrenez hurren.

Organismo autonomo bat sortzeko araua ematen denean, bertan berariaz adierazi behar da nolakoa den, egingo dituen jarduerak kontuan hartuz.

Aurrekontu eta kontabilitate araubideari dagozkionez, toki erakundeen sozietate publikoak dira sozietatearen kapitalaren edo funtsaren %50 baino gehiago halako batek duenekoak.

2. artikulua.- Jarduketa publikoaren eredua.

Toki erakundeek euren ogasunaren berenezko arloetan jardungo dute, legezketasunaren, objektibotasunaren, ekonomiaren, eraginkortasunaren, kontrolaren, kutxa batasunaren eta menpeko organismo eta erakundeen arteko koordinazioaren abiaburuaren arabera.

I. TITULUA - AURREKONTU OROKORRAK

I. Kapitulua .- Aurrekontuen definizioa, indarraldia eta abiaburuak

3. artikulua.- Definizioa eta integrazioa.

1.- Aurrekontu orokorrak toki erakundeek ekitaldi ekonomiko eta aurrekontu ekitaldi bakoitzean egin beharreko jarduera ekonomikoren zuzentegitarauko erabakien adierazpen formalak dira, finantzen eta kontabilitatearen eremuan.

2.- Aurrekontu orokorrak, gainera, toki erakundeen baliabideen administrazio zuzenaren kontrolerako tresna ere badira.

3.- Aurrekontu orokorretan toki erakundearen beraren aurrekontua, beraren organismo autonomoenak eta beraien menpeko sozietate publikoenak biltzen dira.

4. artikulua.- Aurrekontuen indarraldia.

Ekitaldi ekonomikoa edo aurrekontu-ekitaldia bat etorriko da egutegiko urtearekin.

5. artikulua.- Aurrekontu abiaburuak.

Aurrekontu orokorrak abiaburu hauen arabera prestatu behar dira:

1.- Finantzen oreka: aurrekontu bakoitzari dagokionez, sarreren zenbatekoa gastuen zenbatekoa estaltzeko beste izan behar da.

2.- Orokortasuna: aurrekontuetan likidatu beharreko eta aintzat hartu beharreko eskubide eta betebeharrak guztiak agertu behar dira, hurrenez hurren, inolako salbuespenik gabe.

Eskubide edo betebeharrak ekonomikoak sortzen dituzten eragiketa guztiek aurrekontuan agertarazi behar dira. Aurreikusitako gabeko eragiketak aurrekontuaren beterazpidearen barruan erregistratuko dira, kasuan-kasuan aplikatu beharreko arauak lotuz.

3.- Lotura eza: toki erakundearen eta haien organismo autonomo eta

sozietate publikoen baliabideak beraien betebeharrak guztietarako erabiliko dira; helburu jakinetarako xedatuta daudenak izan ezik.

4.- Osotasuna: likidatutako eskubideak eta aintzatetsitako betebeharrak oso-osorik aplikatuko zaizkie aurrekontuei; betebeharrak ezin asetu izango dira likidatu beharreko eskubideak edo dagoeneko sartuta daudenak gutxituz, berariazko legezko baimena eman ezean. Aurrekotik salbuetsita daude auzitegi edo agintaritzaren eskudunek bidegabetzat jotzen dituzten sarreraren itzulketak.

II. Kapituluak.- Aurrekontu orokorren edukia

6. artikulua.- Edukia.

1.- Toki erakundeak eta beraien organismo autonomoen aurrekontu bakoitzak atal hauek eduki behar ditu:

- a) Ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubide ekonomikoak zenbatesten dituen sarreraren orria.
- b) Betebeharrak, ordainketarakoak zein konpromisokoak, betetzeko behar diren kredituak hartzen dituen gastuen orria.
- c) Eginkizun egitarauen koadro deskribatzaileak.
- d) Aurrekontuaren edukia eta aurrekoarekin erkatuta egin diren aldaketa nagusiak azaltzen dituen memoria; horrez gainera aurrekontua egiteko kontuan hartu diren irizpideak ere azaldu behar dira.
- e) Onetsi eta erabilitako konpromiso-kredituen eranskina; bertan erakundeak aurrekontua aurkezten denean erabilia dituen konpromiso-kredituak agertarazi behar dira, urteka banakatuta. Likidatu gabeko aurrekontuetan, egun horretan indarrean dauden zainpeketa guztiak agertu behar dira.
- f) Ekitaldian zehar egin beharreko inbertsioen eranskina; bertan inbertsio horiek erakundeak onetsi duen hirigintzako plangintzarekin dituzten konexioak adierazi behar dira.
- g) Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien eranskina; bertan aurrekontuan kapitulu horietan aurreikusitako gastuak eta diru-laguntzen kontzeptuak araupetzeko prozedura zehaztu behar dira.
- h) Zorpeketari buruzko eranskina; bertan erakundeak aurrekontu ekitaldiaren hasieran eta amaieran izango dituen finantza zorrak agertarazi behar dira, eta aurreikusitako aldaketak eta korritu-ordainketak eta eragiketa arrunten ziozko baliabideei dagokien finantza zama zehaztu behar dira.
- i) Pertsonalaren eranskina; bertan erakundearen aurrekontu-plantilako diren lanpostuen zerrenda (Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearekin eta hura garatu duten xedapenekin bat etorritik egina) eman behar da.

2.- Merkataritzako organismo autonomo eta sozietate publikoen aurrekontuek

agiri hauek eduki behar dituzte:

- a) Galeren eta irabazien behin-behineko kontua; bertan kasuan kasuko ekitaldiko jarduera arrunten sarreraren orria, behar diren zenbatespenekin, eta gastuen orria, beharrezanaren ebaluazioarekin, agertu behar dira.
- b) Behin-behineko balantzea; bertan aurreikusitakoaren arabera erakundeak ekitaldi ekonomikoaren azken egunean izango duen ondare egoera azalduko da.
- c) Memoria, finantzaketa-taularekin.
- d) Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien eranskina; bertan aurrekontuan kapitulu horietan aurreikusitako gastuak eta diru-laguntzen kontzeptuak araupetzeko prozedura zehaztu behar dira.
- e) Zorpeketari buruzko eranskina; bertan erakundeak aurrekontu ekitaldiaren hasieran eta amaieran izango dituen finantza zorrak agertarazi behar dira, eta aurreikusitako aldaketak eta korritu-ordainketak eta eragiketa arrunten ziozko baliabideei dagokien finantza zama zehaztu behar dira.
- f) Pertsonalaren eranskina; bertan erakundearen aurrekontu-plantilako diren lanpostuen zerrenda (Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearekin eta hura garatu duten xedapenekin bat etorriz egina) eman behar da.
- g) Ekitaldian zehar egin beharreko inbertsioen eranskina; bertan inbertsio horiek erakundeak onetsi duen hirigintzako plangintzarekin dituzten konexioak adierazi behar dira.

3.- Aurrekontu orokorrean 1. eta 2. idatz zatietan aipatutako agiriak ez ezik jarraiko hauek ere egon behar dira:

- a) Aurrekontu orokorraren edukia azaltzen duen memoria; bertan aurreko aurrekontuaren aldean egin diren aldaketak aztertu behar dira, garrantzitsuenak nabarmenduz, eta haietako bakoitzaren edukia azaldu behar da, bai eta Aurrekontuak Gauzatzeko Arauan ezarritako gainerako neurriak ere bai.
- b) Tokiko arlo publikoaren aurrekontu bateratua.
- c) Aurrekontuak Gauzatzeko Araua; bertan, besteak beste, nahitaez agertu behar dira bermeak emateko eta zorpetzeko gehieneko mugak, erakunde bakoitzari aplikatuko zaizkionak.
- d) Itxitako azken ekitaldiko aurrekontu orokorraren likidazioa, eta horrekin batera lortutako gauzatze mailari buruzko memoria eta aribideko aurrekontuaren aurrerapena, gutxienez sei hilabete hartzen dituen.
- e) Ekonomia-finantzazko txostena; bertan sarreraren eta aurreikusitako kreditu-eragiketen ebaluaziorako erabilitako oinarriak azaldu behar dira, eskatuko diren betebeharrei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko kredituak aski direla frogatu behar da, hau da, aurrekontua orekatuta dagoela. Txostenean, gainera, udalak konpromiso-kredituak finantzatzeko nahikoa baliabide dituen ere aztertu behar da, eta aztertu ere aparteko atal batean.

7. artikulua.- Sarrerren orriak.

1.- Aurrekontuko sarrerren orrietan erakundeak kontzeptu guztien zioz aurrekontu ekitaldian likidatuko dituen finantza baliabideen zenbatekoa agertu behar da.

2.- Sarrerren orrietako zenbatekoak zenbatespenak izango dira, aurrekontua egitean zehatz-mehatz ezagutzen direnak izan ezik, horiek berariaz zehatz agertaraziko baitira.

3.- Merkataritzako organismo autonomoek eta sozietate publikoek hartzen dituzten kapital transferentziak eta diru-laguntzak beraien kapital eragiketarako finantzatzeko baliabideak izango dira eta beraien Behin-behineko Balantzean sartuko dira. Aurrekoa gorabehera, funtsak beste pertsona edo erakunde bati diru-laguntza eta kapital transferentziak emateko jasotzen direnean, sarrera gisa sartuko dira Galeren eta Irabazien Kontuan.

8. artikulua.- Gastuen orriak.

Aurrekontuko gastuen orrietan hauek agertu behar dira:

- a) Aurrekontu ekitaldiaren kargura aintzatetsi ahal diren gastuei aurre egiteko behar diren ordainketa kredituak.
- b) Hainbat aurrekontu ekitalditan luzatuko diren ekintzak finantzatzeko hartu behar diren betebeharrak juridiko-ekonomikoei aurre egiteko konpromiso-kredituak, ordainketa kreditua zuzkituta dutenak, arau honetan ezarritakoaren arabera.

9. artikulua.- Aurrekontuak Gauzatzeko Araua.

Toki erakundearen aurrekontu orokorretan Aurrekontuak Gauzatzeko Araua egon behar da; bertan aurrekontu arloko xedapen orokorrak erakundearen antolaketara eta inguruabarretara moldatu behar dira eta kudeaketa zuzenerako behar diren moldaketak ere egingo dira: gastuak hobeto egiteko eta baliabideak hobeto biltzeko egokietsi eta komeniesten diren ohartarazpenak ezarriko dira. Ekonomia administrazioari buruzko legeria ezin alda daiteke, ez eta aurrekonturako aurreikusitakoa ez beste prozedura eta formalitate bereziak behar dituzten administrazio manuak ezarri ere.

III. Kapituluak.- Aurrekontu orokorren egitura

10. artikulua.- Arau orokorrak.

1.- Aurrekontu orokorren egitura sarrera eta gastuen izaera ekonomikoaren eta horien bidez lortu nahi diren helburu edo xedeen arabera izango da, jarraiko artikuluetan ezarriko diren irizpideei jarraituz.

2.- Toki erakundeek gastu eta sarrerak euren egitura kontuan hartuz sailkatu

ahal izango dituzte, antolaketarako araudi edo dekretuen arabera.

11. artikulua.- Egitura ekonomikoa.

1.- Aurrekontuetako sarrera eta gastuen orriak haien izaera ekonomikoa oinarritzat hartuta zehaztuko den kontabilitate egituraren arabera aurkeztuko dira.

Gastuen orrien egitura ekonomikoan eragiketa arruntetarako kredituak eta kapital eragiketarako kredituak bereztuko dira.

Eragiketa arruntetarako kredituetan pertsonalekoak, ondasun arrunt eta zerbitzuetakoak, finantza gastuak eta transferentzia eta diru-laguntza arruntak sartuko dira.

Kapital eragiketarako kredituetan ondasun-inbertsioetarakoak, kapital transferentziak eta kapital diru-laguntzak eta finantza aktibo eta pasiboen aldaketak bereztuko dira.

Sarreraren orriaren egitura ekonomikoan eragiketa arrunten ziozko aurreikuspenak eta kapital eragiketen ziozkoak bereztuko dira.

Eragiketa arrunten ziozko aurreikuspenetan zuzeneko zergak, zeharkako zergak, tasak eta bestelako sarrerak, transferentzia eta diru-laguntza arruntak eta ondare-sarrerak sartuko dira.

Kapital eragiketen ziozko aurreikuspenetan ondasun-inbertsioen besterentzeak, kapital transferentziak eta diru-laguntzak eta finantza aktibo eta pasiboen aldaketak bereztuko dira.

2.- Behin-behineko Balantzearen, Galera eta Irabazien Behin-behineko Kontuaren eta Behin-behineko Finantzaketa Taularen kontabilitate-egitura arau honetako 59. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako kontabilitate publikoari buruzko arauetara moldatuko da.

12. artikulua.- Eginkizun egitaraukako egitura.

1.- Toki erakundearen administrazioaren eta beraren administrazio organismo autonomoen aurrekontuko ordainketa-kredituak eginkizun egitarauka sailkatuta aurkeztuko dira, eta behar denean egitarauka eta azpiegitarauka ere bai.

2.- Eginkizun egitarau bakoitzean lortu nahi dituen helburuei, ekitaldian beharko diren giza eta finantza baliabideei, egin beharreko jardueri eta hauen burutzapenaren arduradunei buruzko informazioa bildu behar da.

3.- Eginkizun egitarau bakoitzaren helburuak jarraitzeko moduan zehaztuko dira, ahal denean.

4.- Eginkizun egitarau bakoitzean, behar denean, burutzapenaren bidez lortu uste diren eta aurrekontuko sarreraren orrian ageri diren sarrerei buruzko informazioa bilduko da.

5.- Toki erakundearen administrazioaren eta administrazio organismo autonomoen aurrekontuko konpromiso-kredituak beraiei dagozkien ordainketa-kredituei aipamena behar bezala eginda aurkeztuko dira, ordainketa-kreditu horiek sartuta dauden eginkizun egitarauen barruan.

13. artikulua.- Aurrekontu egituraren mailak.

1.- Euskal arlo publikoa bateratzeko arauari kalterik egin gabe, arau hau garatzeko ematen direnetan eginkizun maila ezberdinak ezarriko dira, ordainketa- eta konpromiso- kredituak zehazten den antolaketa-unitate bakoitzak egin beharreko jardueren arabera elkartzeko.

2.- Sailkapen ekonomikoak hiru maila izango ditu gutxienez: lehenengoa kapitulua, bigarrena artikulua eta hirugarrena kontzeptua.

3.- Aurrekontu-partida, zeinen kopuru adierazpena aurrekontu-kreditua baita, eginkizun egitaraukako egiturak eta egitura ekonomikoak definituko dute, gutxienez, eginkizun egitarauen mailan eta kontzeptuen mailan, hurrenez hurren.

Gastuen kontabilitatea aurrekontu-partidaren gainean egingo da eta kontuhartze-kontrola arau honetako 19-2. artikuluaaren arabera zehaztuko den lotura mailaren gainean.

4.- Sarrerak kontzeptu mailan kontabilizatu eta kontrolatuko dira, gutxienez.

IV. Kapituluak.- Aurrekontu orokorren gertuketa eta onespena

14. artikulua.- Gertutu eta onesteko eskumena.

1.- Toki erakundearen administrazioaren aurrekontua haren buruak prestatuko du; horretarako, hurrengo ekitaldirako aurrekontua egiteko behar diren gidalerro ekonomikoak eman ahal ditu.

2.- Administrazio organismo autonomo bakoitzaren aurrekontua, orokorraren osagai dena, hasieran organo eskudunak proposatuko duena, atxikita dagoen toki erakundeko buruari bidaliko zaio irailaren 30a baino lehen.

3.- Merkataritzako organismo autonomo eta sozietate publikoek toki erakundeko buruari 6. artikuluan ezarritako agiriak bidali behar dizkiote irailaren 30a baino lehen. Kontabilitate orri horiek oinarri hartuta, toki erakundeko buruak administrazio aurrekontuaren egitura ekonomikoari dagozkionak prestatuko ditu, artikuluan mailan gutxienez.

4.- Aurreko idatz zatietan aipatutako aurrekontuak eta aurreikuspen orriak oinarritzat hartuta, toki erakundeko buruak aurrekontu orokorra prestatuko du eta, Kontuhartzaitzak txostena eman ondoren, arauzko tramitazioa urriaren

15a baino lehen eginda, 6. artikuluan zehaztutako eranskinekin eta agiriekin bidaliko dio korporazioaren osoko batzari, hark onetsi dezan edo zuzen dezan edo itzul dezan.

5.- Onespen erabakia bakarra izango da eta bertan aurrekontu orokorreko aurrekontuak xehekatu behar dira; haiek ezin dira onetsi bereiz.

6.- Aurrekontu orokorreko aurrekontu bakoitza hasierako mentsik gabe onetsi behar da.

Nolanahi ere, eragiketa arrunten ziozko sarrerak gutxienez gastu arruntak eta zorren amortizazio-gastuak bat eginez sortzen den kopuruaren beste izan behar dira.

15. artikulua.- Ondorengo tramiteak.

1.- Aurrekontu orokorra hasieran onetsita, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren jendaurrera azalduko da hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta osoko batzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da. Bestela, osoko batzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

2.- Korporazioaren osoko batzak aplikatu behar den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen onetsi beharko du behin betiko aurrekontu orokorra.

3.- Aurrekontu orokorra behin betiko onetsita, korporazioaren aldizkari ofizialean argitaratuko da, halakorik badu, eta Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean ere bai, aurrekontuak kapituluka laburtuta.

4.- Behin betiko onetsi ondoren, aurrekontu orokorraren kopia bidaliko zaio Foru Aldundiari, eta gero hark administrazio eskudunei bidaliko die.

5.- Aurrekontuaren eta beraren aldaketen kopia jendearen esku egon beharko da, informazio gisa, behin betiko onesten denetik ekitaldia amaitu arte.

16. artikulua.- Indarrean jartzea.

Aurrekontua berari dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko artikuluko 3. idatz zatian aurreikusitako bezala argitaratu ondoren.

17. artikulua.- Interesatuak.

1.- 15. artikuluko 1. idatz zatian xedatutakoari dagokionez, hauexek hartuko dira interesatutzat:

- a) Erakundea dagoen lurraldeko biztanleak.
- b) Erakundearen lurraldean bizi ez badira ere, zuzenean ukituta

daudenak.

c) Elkargo ofizialak, ganbara ofizialak, sindikatuak, elkarteak eta lanbide nahiz ekonomia eta auzo interesak jagoteko legez eratuta dauden gainerako erakundeak, beraiei dagozkien defentsan dihardutenean.

2.- Aurrekontuaren aurkako erreklamazioak arrazoi hauengatik soilik aurkeztu ahal izango dira:

a) Gertuketa eta onespena arau honetan ezarritako izapideei lotuz ez egitea.

b) Legezko manua edo legebidezko beste edozein titulu dela bide erakundeari eska dakizkiokeen betebeharrak betetzeko behar den kreditua alde batera uztea.

c) Sarrerak ez izatea nahiko aurrekontuko gastuei aurre egiteko, edo gastuak ez izatea nahiko beharrianetarako.

18. artikulua.- Errekurtsoak.

1.- Aurrekontuaren behin betiko onespeneren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean, aginpide horri buruzko arauetan ezarritako moduan eta epeetan.

2.- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, aurkapena aurrekontu galgaketari lotu edo dagokionean, txostena eman beharko du errekurtsoa ebatzi baino lehen.

3.- Errekurtsoak jartzeak ez du berez etengo korporazioak behin betiko onetsitako aurrekontuaren aplikazioa.

V. Kapituluak.- Aurrekontu-kredituen araubide orokorra eta aldaketen araubidea

19. artikulua.- Arau orokorrak.

1.- Aurrekontu-kredituak erakundearen aurrekontu orokorrean edo behin betiko onetsitako haren aldaketen baimendutako helburuetarako soilik erabiliko dira.

2.- Aurrekontu-kredituak muga eta lotura izaerakoak dira. Lotura mailak urteko Aurrekontuak Gauzatzeko Arauan ezarriko dira eta, beren beregi zehazten ez denean, honako hauek izango dira:

- Eginkizun egitaraua eta kontzeptua, gastu arrunten ziozko eta kapital transferentzia eta diru-laguntzen, ondasun-inbertsioen eta finantza aktiboen aldaketen ziozko gastuetan.

- Eginkizun egitaraua eta kapituluak, ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuetan, finantza-gastuetan eta finantza pasiboen aldaketen ziozko gastuetan.

- Kapituluak, langileen gastuetan.

3.- Toki administrazioak ematen dituen erabaki, xedapen, ebazpen eta egintzek, beraien bitartez gastuen orrian baimendutako muga izaerako kredituen zenbatekoa baino gehiagoko zenbatekoko gastu-konpromisoak eskuratu nahi direnean, zuzenbide osoko baliogabetasuna izango dute, sortzen diren erantzukizunei kalte egin gabe.

20. artikulua.- Ordainketa-kredituak.

1.- Aurrekontuetako gastuen orrietako ordainketa-kredituak:

- a) Aurrekontuek eta arau honetako manuen arabera egindako aldatetarako baimendutako helburuak betetzeko aplikatuko dira.
- b) Muga izaerakoak izango dira eta ezin har daiteke beraien zenbatekoa gainditzen duten gastuetarako konpromisorik, ezta ordaindu ere, horrelakotzat krediturako onetsitako zenbatekoa edo, horren ezean, arau honetako xedapenen arabera aldatutako zenbatekoa hartzen dela. Hala ere, ordainketa-kredituak konpromiso-kredituak zuzkidura dueneko betebeharre dagozkienean, kreditu bien zuzkiduren baturaren baliokidea den zenbatekorako konpromisoa hartu ahal izango da.

2.- Merkataritzako organismo autonomoetan, eta aurreko idatz zatian xedatutakoaren salbuespen gisa, transferentzia eta diru-laguntza arruntetarako eta kapital transferentzia eta diru-laguntzetarako, ondasun-inbertsioetarako eta finantza eragiketarako (korrituak barne), eta, hurrengo artikuluaaren edukiaren arabera, pertsonalaren gastuetarako diren ordainketa-kredituak bakarrik izango dira muga izaerakoak, horretarako organismoa araupetzen duen arautegiak ezartzen duenari kalte egin gabe.

3.- Sozietate publikoetan, transferentzia eta diru-laguntza arruntetarako eta kapital transferentzia eta diru-laguntzetarako ordainketa-kredituak bakarrik izango dira muga izaerakoak.

21. artikulua.- Langileen kredituak.

Aurrekontuetako gastuen orrietan bildutako langileen gastuetarako ordainketa-kredituak honelakoak izango dira:

- a) Toki erakundearen administrazioan eta administrazio organismo autonomoetan, muga izaerakoak izango dira, bai kredituaren zenbatekoari dagokionean, bai plantilari dagokionean.
- b) Merkataritzako organismo autonomo eta sozietate publikoak direnean, zenbatestekoak izango dira, merkataritzako organismo autonomoetan plantilako pertsonalaren gastuetarako diren ordainketa-kredituak izan ezik, hauentzat aurreko idatz zati ezarritakoa izango baita aginduzko.

22. artikulua.- Konpromiso-kredituak.

1.- Konpromiso-kredituen orria ekitaldian zehar konprometatu ahal diren urte anitzeko gastu guztiek osatzen dute eta hura onesten denean beraien

bideratzeko baimena egongo da, ezarritako baldintzetan.

2.- Konpromiso-kredituen orrietan bakoitzarentzat zenbateko osoa eta beraren burutzapenerako aurreikusitako ekitaldiak adieraziko dira.

Etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromiso-kredituen zenbateko metatua ezin da izan erakundearen likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arrunten ziozko baliabideen %25 baino gehiago, 6.3. e) artikuluan eskatutako azterlanetik muga txikiagoa sortu ezean.

Konpromiso-kredituak bestek finantzatzen baditu, finantzaketaren zenbatekoa ez da konputatuko gastu gisa aurreko paragrafoan aipatutako mugen ondoreetarako.

3.- Aurrekontuek ezin dute konpromiso-krediturik bildu, baldin eta beraien gauzatzea ekitaldian bertan hasten ez bada; hori dela eta, ordainketa-kreditu egokiak izan behar dituzte.

4.- Toki erakundearen administrazioaren eta beraren administrazio organismo autonomoen aurrekontuen barruan sartutako konpromiso-kredituak geroagoko adjudikazioaren menpeko eragiketei dagozkienean eta, beraz, aurretiaz zehatz-mehatz ezin finka daitekeen zenbatekokoak direnean, toki erakundearen osoko batzak baimena eman ahal izango du, bakoitzaren kontratuak hasieran aurreikusitako edota onetsitako zenbatekoaren gaineko %20ko gehikuntzarekin eta jatorrian aurreikusitako epealdia urtebetez gainditzen duen denboraldirako sinatzeko. Honi dagokionez, gehikuntza zenbateko bereko beste konpromiso kreditu batzuen gutxipen berdinen kontra egiten denean izan ezik, konpromiso-kredituen kopuru berriari aurre egiteko nahikoa udal finantza baliabideak daudela, bai eta artikuluko honetako 2. idatz zatian ezarritako gehieneko muga gordetzen dela ere aztertu beharko da aurretiaz.

5.- Merkataritzako organismo autonomo eta sozietate publikoen aurrekontuetako konpromiso-kredituen orriak kapital eragiketei dagozkienak bakarrik bilduko ditu.

Erakunde hauetan erantzukizuna duten organoek hasieran onetsitako zenbatekoak %10ean gehitu ahal izango dituzte. Gehikuntza hori, korporazioaren osoko batzak beren beregi baimena emanda, %30erainokoa izan daiteke.

6.- Konpromiso-kredituen orriaren barruan, ez dira pertsonalari, finantza zamei eta zorpeketatik sortzen diren amortizazioei dagozkien gastuak, ondasun higiezin errentamenduari dagozkion konpromisoak, iraunkorrak direnak eta segidako traktukoak sartuko.

7.- Konpromiso-kredituak egokiro eta banan-banan kontabilizatuko dira.

23. artikulua.- Kreditu globala.

Toki erakundearen administrazioaren aurrekontuko gastuen orriaren barruan, ordainketa-kreditu globala sartu ahal izango da, ordainketarako beste kreditu batzuen zuzkiduren askiezak betetzeko edo zuzkidurarik ez duten beharriaz aurre egiteko, bai eta arau honetan xedatutakoaren arabera zabalgarritzat hartzen diren kredituak finantzatzeko ere. Horrela eraturako kreditu globalaren zuzkidura ez da toki erakundearen administrazioaren aurrekontuko ordainketa-kredituen zenbateko osoaren %5 baino gehiago izango, zenbateko horren barruan kreditu globalaren beraren zuzkidura dagoela.

Kreditu globalak honako prozedura hau bete behar du:

- a) Ezin da zuzenean kreditu global horren aurka gastu baimenik eman.
- b) Kreditu globalak jatorritik erabili behar dira beti; kreditu globala ezin da inolaz ere gehitu, gero osoko batzak baimendu eta aldaketa onetsi ezean, beti ere hasierako ordainketa-kredituen %5eko muga errespetatzen dela.
- c) Kreditu globaletik egiten diren transferentziei ez zaizkie aplikatuko foru arau honetako 29. artikuluko xedapenak.

Kreditu globala erabili ahal izateko baimena korporazioburuak eman beharko du, Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak horri buruz ezartzen duenari kalte egin gabe.

24. artikulua.- Kreditu zabalgarriak.

1.- Hasieran muga izaerakoak izanik, araubidez ezarritako edo ezarriko diren formalitateak bete ondoren, zenbatekoa gehi dezaketen ordainketa kredituak jo ahal izango dira zabalgarritzat, honako hauen arabera:

- a) Arlo honi buruzko indarreko xedapenen arabera, kredituari edo kredituei zuzenean lotu zaizkion edo zaizkien benetan bildutako sarreren arabera.
- b) Aurreko artikuluan definitutako kreditu globala erabili den arabera.

2.- Zabalgarritzat hartzen diren ordainketa-kredituak horietakotzat agertuko dira bakoitzaren aurrekontuetako gastuen orrietan, eta behar denean kredituak gehi daitezkeen gehieneko zenbatekoa zehaztuko da.

3.- Aurreko 1. zenbakiko a) kasuan, zabalkuntzari buruzko erabakia korporazioburuak hartuko du eta egiten den lehenengo bilkuran emango dio horren berri osoko batzari, Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak eskumen hau erakundearen osoko batzari ematen dionean izan ezik.

Aurreko 1. zenbakiko b) kasuan, zabalkuntzari buruzko erabakia aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera hartuko da.

4.- Pertsonalaren nahitaezko gizarte aurreikuspenaren araubideari buruzko betebeharrei dagozkien ordainketa-kredituak ere joko dira zabalgarritzat, bakoitzaren aurrekontuetako gastuen orrietan horietakotzat agertu gabe, hari ordaintzeari buruzko erregimenaren aldaketen ondorioz, kasuan kasuko

aplikatu beharreko xedapenen arabera, aintzatetsi eta likidatzen diren betebeharren zenbatekoan.

25. artikulua.- Kudeaketa-kredituak.

1.- Bakoitzaren aurrekontuetako gastuen orriek, toki erakundeak eskudunak ez diren arloetako proiektuak burutzeko, beste erakunde publikoen funtsak hartzetik sortzen diren betebeharrei aurre egiteko behar diren ordainketa kredituak bilduko dituzte.

2.- Aurreko epigrafean aipatu diren egoerei dagozkien ordainketa-kredituak gastuen orrietan agertuko dira, inguruabar hori adieraziz, eta beraien betearazpena kasuan kasuko aplikatu beharreko arautegiari lotuko zaio.

26. artikulua.- Betebeharren eskagarritasuna.

1.- Toki erakundearen administrazioaren eta beraren administrazio organismo autonomoen kargurako kopuruen ordainketa betebeharrak aurrekontuak gauzatzetik, epaitza irmotik eta aurrekontuz kanpoko eragiketetatik sortzen direnean bakarrik eskatu ahal izango dira.

2.- Auzitegi, epaile eta administrazio agintariek ezin izango dute betearazpen agindurik luzatu, ez eta bahitura probidentziarik eman ere, toki ogasunaren eskubide, funts, balio eta, oro har, ondasunen aurka, ez eta toki erakundeei fidantza, gordailu eta gauderik eskatu ere, erabilera edo zerbitzu publikorako ondare-ondasunak direnean izan ezik.

3.- Toki erakundearen edo beraien organismo autonomoen kargurako betebeharrak sortzen dituzten epai ebazpenak beraiek bete behar dituzte.

4.- Gauzatzearen ardura duen administrazio agintaritzak erabakiko du ordainketa, aurrekontu bakoitzean dauden era eta mugekin. Ordainketa egiteko, beste kreditu bat behar bada, osoko batzari eskatu beharko zaio, epai ebazpena jakinarazi eta hurrengo hiru hilabeteen barruan.

5.- Sozietate publikoen kargurako ordainketa betebeharrak antolamendu juridiko pribatuan xedatutakoarekin bat etorritik eskatu ahal izango dira.

6.- Toki erakundearen administrazioaren edo beraren administrazio organismo autonomoen kargurako ordainketa betebeharrak, beste aldearentzat ere betebeharrak sortzen dituzten harreman juridikoetatik datozenean, haiek ezin izango dira eskatu hauek bete ez badira edo behar bezala bermatu ez badira. Epaitza irmoaren bidez aintzatesten diren betebeharrak salbuetsita daude.

27. artikulua.- Aldaketen araubideari aplikatu beharreko arautegia.

1.- Aurrekontu orokorrak osatzen dituzten aurrekontuetarik bakoitzeko sarreren

eta gastuen orriak aldatu ahal izango dira, honako titulu honetako arauekin eta urteroko Aurrekontuak Gauzatzeko Arauan ezarritakoekin bat etorriz.

Dena dela, aurkakoa adierazten denean izan ezik, foru arau honetan dauden zehaztapenak urteroko Aurrekontuak Gauzatzeko Arauaren bidez aldatu ahal izango dira, baina murriztuz baino ez.

2.- Arau honetako 15. artikuluan aurreikusitakoaren arabera geroago tramitatu beharrik ez duten arloetan toki erakundeko buruari edo osoko batzari eratzikitako eskumenak urteko Aurrekontuak Gauzatzeko Arauan agerian eskuordetu ahal izango dira, Toki Erregimenari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak xedatzen duenaren arabera.

3.- Onesten diren aldaketen berri eman beharko zaio osoko batzari egiten den lehenengo bileran.

28. artikulua.- Aldaketak gastuen eta sarrerren orrietan.

Aurrekontu orokorrak osatzen dituzten gastuen eta sarrerren orrietako aldaketak mota bitakoak izan daitezke:

- a) Gastuen orrietan, onetsita izan ziren bezala, dauden zenbateko osoari ez dagozkion aldaketak, arau honetako 36. artikuluan araupetutako kreditu transferentzia eta aldaketen araubidearen arabekoak izango direnak.
- b) Ukituriko orrietako zenbateko osoari dagozkion aldaketak, araubide hauek gordeko dituzte:
 - a. Kreditu gaikuntzari buruzkoa.
 - b. Kreditu txertaketari buruzkoa.
 - c. Baliogabetzearen ziozko baxei buruzkoa.
 - d. Kreditu gehigarriari buruzkoa.
 - e. Itunei buruzkoa

29. artikulua.- Kreditu transferentzien araubidea.

1.- Arau honi dagokionez, kreditu transferentziazat, aurrekontuaren zenbateko osoa aldatu gabe, kreditu baten zenbateko osoa edo partziala lotura juridikoko maila ezberdinei dagozkien aurrekontuetako partiden artean eramaten duen gastuen aurrekontuaren aldaketa hartuko da.

Kreditu transferentziek beste aurrekontu-partida batzuk sortzea ekar dezakete. Aurrekontuak luzatuta dauden epean aldeztu aurretik aurrekontuak aurkeztu eta eztabaidatuta, horiek guztiak Osoko Bilkurara eraman beharko dira eta ezingo dituzte Inbertsioen 6. kapituluko urteko partiden % 5etik gorako inbertsiorik egin. ([Apirilaren 16ko 5/2012 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOk 47 zk. 2012 apirilaren 25ko](#))

2.- Toki erakundeek, urtero, Aurrekontuak Gauzatzeko Arauan, kreditu transferentzien erregimena araupetuko dute, kasuan kasuko, baimena emateko

eskumena duen organoa ezarriz, hau guztiau arau honetako 27. artikuluan ezarritako eremu orokorraren barruan.

3.- Eginkizun egitarau baten barruko transferentziak toki erakundeko buruaren eskumenekoak izango dira, ondasun-inbertsioak aurreikusitako zainpeketak gutxitzen dituztenak ezik, orduan osoko batzak emango baitu baimena.

4.- Eginkizun egitarau ezberdin batzuen arteko transferentziak erakundeko buruak onetsiko ditu, jatorrizko eta destinoko egitarauetako aldaketen diferentzia metatuak aurreikusitako hasierako zainpeketen %25 gainditzen ez dituztenean, ondasun-inbertsioetarako zainpeketak gutxitzen dituztenean izan ezik.

Gainerakoetan, erabakia korporazioaren osoko batzak hartuko du.

5.- Mota guztietako kreditu transferentziek honako muga hauek izango dituzte:

a) Ez dituzte transferentzien erregimenaren arabera edo kreditu gehigarrien bitartez gehitutako ordainketa kredituak gutxituko, ez eta arau honetako 22-4. artikuluan xedatutakoaren arabera gehitua den konpromiso kredituari dagozkionak ere.

b) Ez dituzte beste transferentzia batzuen ondorioz gutxituak diren kredituak handituko.

c) Ezin dituzte zabalgarritzat hartzen diren kredituak gutxitu, kalifikazio hori galduz, beraz, eta geroago ezin gehitu dira.

Aurreko mugak ez dagozkie pertsonalaren kredituei buruzko kreditu transferentziei eta ez dira aplikatuko, korporazioaren osoko batzak onetsiak diren administrazio berrantolaketen ziozko transferentziak direnean.

6.- Ekitaldian onesten diren kreditu transferentzietan 14.6. artikuluan xedatutakoa bete behar da.

30. artikulua.- Konpromiso-kredituei dagozkien transferentziak.

1.- Transferentziek konpromiso-kredituei dagozkien ordainketa-kredituak gutxitzen dituztenean, kontratuen zenbatekoa gehitzeko baimena eman ahal izango da, arau honetako 22-4. artikuluan aurreikusita, gutxitutako zenbatekoa kenduz.

Hala ere, aurreko atalak aipatu dituen transferentziak ordainketa-kredituaren zuzkidurako zenbateko osoari badagozkio, konpromiso-kreditua, ordainketa kreditua beraren zatia dela, baliorik gabe geldituko da berez.

2.- Konpromiso-kredituei dagozkien ordainketa kredituen zuzkidura handitzen duten transferentziek honako ondore hauetako bat sortuko dute:

a) Konpromiso-kreditua transferitutako zenbatekoan gutxitu.

b) Konpromiso-kredituaren zenbatekoak aurreko kopuruari eutsi.

Aurreko a) kasuan, arau honetako 22-4. artikuluan aurreikusitako

gehikuntzarako baimena eman ahal izango da, konpromiso-kredituaren zuzkidura berriaren gainean aplikatuta, b) kasuan, eta jasotako gehikuntza manu horrek aipatutako baimenaren mugak zehazteko konputatuko da.

31. artikulua.- Kreditu gaikuntza.

1.- Ekitaldian lortu baina toki erakundearen administrazioaren eta beraren organismo autonomoen aurrekontuetako sarreraren orrietan aurreikusi gabeko sarrerek, gastuen orri egokian, aurrekontu kredituak gaitu ahal izango dituzte.

2.- Kreditu berriak gaitu edo daudenak zabaldu ahal dituzten sarreratzat hartu ahal izateko, iturriak honako eragiketa hauek izango dira:

- a) Norbanakoek edo pertsona juridikoek egindako ekarpenak edo ekarpenerako konpromiso irmoak; beti ere, toki erakundearekin edo beraren organismo autonomo batekin batera, hurrenez hurreneko helburu edo xedeen barruan, beren izaera bereziagatik dauden gastuak finantzatzeko direnean.
- b) Ondare ondasunen besterentzeak.
- c) Zerbitzugintzak.
- d) Maileguen itzulkinak.
- e) Beste erakunde publiko batzuen aurrekontu orokorren kargura jaso edo pertsona edo erakunde pribatuek ematen dituzten beste ekarpen batzuk.
- f) Zorrik gabe egin eta itxitako ekitaldiei dagozkien ordainketen itzulkinak.

3. Kreditua gaitzeko betebeharrak hauek bete behar dira nahitaez:

Aurreko 2. puntuko a), b) eta e) idatz-zatietan ezarritako balizkoetan, eskubidea aintzatetsi behar da, edo ekarpena egiteko konpromiso irmoa dagoela.

Aurreko 2. puntuko c) eta d) idatz-zatietan ezarritako balizkoetan, eskubidea aintzatetsi behar da; nolana ere, horrelako kasuetan kreditua baliatu ahal izateko eskubideak bildu beharko dira lehenik.

Aribideko aurrekontuko itzulkinak gertatzen direnean, itzulkina kobratu egin behar da.

4. Aurreko 2. puntuko a) eta e) letretan deskribaturiko eragiketetan oinarrituz gaitutako kredituak, dagokionean, ondorio horretarako hitzartutako proiektu jakin batzuk burutzeko aplikatu beharko dira.

Aurreko 2. puntuko b) letretan deskribaturiko eragiketetan oinarrituz gaitutako kredituak, kasu orotan, kapital eragiketak finantzatzeko aplikatu beharko dira.

5. Lortutako sarrerak finalistak direnean, Korporazioaren Lehendakariak baimenduko du gaikuntza, gainerako kasuetan eskuduntza Osoko Bilkurari dagokiolarik.

6. Aurreko 2. atalean ezarritakoaz gain, krediturik gaitu ahal izango da partida zabalgarrietan eta kreditu globalean, likidatutako tributu sarrera berri edota

handiagoez baliatuz.

32. artikulua.- Kreditu txertaketa.

1.- Toki erakundearen administrazioaren aurrekontuari eta beraren administrazio organismo autonomoen aurrekontuari, kasuan kasuko, indarreko ekitaldikoak izanik, bakoitzaren aurreko ekitaldiko aurrekontuetako gastuen orrien barruko ordainketa kredituak txertatu ahal izango zaizkie, beti ere aintzatetsiak diren betebeharren menpean egon gabe hurrengo kasuetarik batetakoak direnean:

- a) Baimenpeko transferentziaren xede izan diren kredituak eta kreditu gehigarriak, beti ere, kasu bietan, ekitaldiko azken hiruhilekoan emanak direnean.
- b) Erabilitako gastuei dagozkien kredituak, beti ere, bidezkotutako kariak direla bide, beraietarako betebeharra ezin hartua denean.
- c) Gaitutako kredituak eta lotutako sarreren menpeko beste kreditu batzuk.
- d) Kapital eragiketen ziozko kredituak.

2.- Kredituak txertatzen direnean, jatorrizko aurrekontuan zuten helburu berdinarekin egingo dira.

3.- Kreditu gerakinak txertatu ahal izateko, horretarako nahikoa finantza baliabideak egon beharko dira.

4.- Kreditu txertaketak eransten diren ekitaldiaren barruan erabili beharko dira, geroago ezin daitekeela txertaketa gehiagorik egin, helburudun sarreren bitartez finantzatzen diren kapital eragiketak direnean izan ezik. Halaber, txerta daitezkeen kredituak, arau honetan dauden xedapenak direla bide, ekainaren 30ean bakoitzaren aurrekontuei txertatzen ez bazaizkie, baliorik gabe geldituko dira.

5.- Kredituak eginkizun egitarauen barruan sartuz txertatuko dira, beti ere egitarau horiek bakoitzaren jarraiko ekitaldiko aurrekontuetako gastuen orrien barruan sartuta egon eta, gauzatzeari dagozkionez, txertatuak diren kredituak zeudenen jarraipena direnean. Beharrezkoa bada, eginkizun egitarauari alta emango zaio indarreko aurrekontuaren egituran.

6.- Kreditu txertaketak egiteko eskumena, aurretiko zenbakietan dauden irizpide eta abiaburuekin bat etorritz, toki erakundeko buruak dauka, Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak beste organo bati ezartzen dionean izan ezik.

7.- Ordainketa kredituak direnean, baldin eta onetsiak diren ekitaldian

konprometatu ez badira eta konpromiso-kredituei badagozkie, txertaketa eginez gero, azken kredituok berez txertatuko dira.

33. artikulua.- Baliogabetzearen ziozko baxak.

1.- Baliogabetzearen ziozko baxa gastuen aurrekontuaren aldaketa da, beti ere aurrekontuko partidaren bati esleitutako kreditua guztiz edo zati batez gutxitzen duenean.

2.- Gastuen aurrekontuko edozein kredituari eman dakioke baliogabetzearen ziozko baxa, beti ere dagoen kredituaren saldoaren zenbatekoan denean eta zuzkidura hori, harako zerbitzua ukitu gabe, gutxitu edo baliorik gabe utz daitekeela usten denean.

3.- Kredituen baxaren sortzaile, honako hauek izan daitezke:

- a) Diruzaintzaren gerakin negatiboen finantzaketa.
- b) Kreditu gehigarrien finantzaketa.
- c) Toki erakundearen osoko batzaren beste erabaki batzuen betearazpena.

4.- Aurrekontuetan aurreikusitako kredituei baliogabetzearen zioz baxa emateko, korporazioaren osoko batzak hartu beharko du erabakia.

34. artikulua.- Kreditu gehigarriak.

1.- Zainpeturiko ordainketa krediturik eduki gabe edo, kreditua egonaz, berau askieza eta zabalezina bada, gasturen bat egin behar izan eta arau honetan araupetutako aldaketa erregimenaren bidez ezin bete denean, kreditu gehigarria emateko izapideari eutsiko zaio, hurrengo ataletan adieraziko diren arauen arabera.

2.- Kreditu gehigarriari buruzko espedientea, Kontuhartzailtzak txostena eman ondoren, izapidetuko da, gutxienez, honako agiri hauek eduki behar dituelarik:

- a) Gastua beharrezkoa edo presazkoa delako froga, korporazioburuak emana.
- b) Proposatutako gastua finantzatu behar duen baliabidearen eta behar bezala xehekatutako aurrekontu partida gehitu gaiaren zehaztapena.

Honi dagokionez, finantzaketatzat, Diruzaintzaren gerakina, aurrekontu arruntean aurreikusitako sarrera osoen gainean likidatutako berriak eta handiagoak, beti ere sarrera oso horiek normaltasun osoz egiten direla frogatzen denean, helbururen bat izan behar edo badute ezik, eta aurreko artikuluan aipatutako ordainketa kredituen baliogabetzearen ziozko baxak hartuko dira.

Halaber, salbuespen gisa, Toki Erregimenari buruzko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legeko 47.3. artikuluan ezarritako quorumaz hartutako erabakien bitartez, eragiketa arrunten zioz, beharrezkoak eta presazkoak direla

adierazita dauden gastu berriak edo handiagoak finantzatzeko benetan erabil daitezkeen baliabidetzat, kreditu eragiketetatik datozenak hartuko dira, beti ere batera honako baldintza hauek betetzen dituztenean:

- Urteko zenbateko osoa ezin da izan erakundearen aurrekontuko eragiketa arrunten ziozko baliabideen %5 baino gehiago.
- Erakundearen finantza zama osoa, proiektupeko eragiketetatik datorrena barne, ez da baliabide horien %25 baino handiagoa izango.
- Eragiketak hitzartu dituen korporazioa eraberritu baino lehen kitatu behar dira.

3.- Kreditu gehigarriari buruzko espedientea, sinatu eta txostena eman ondoren, korporazioaren osoko batzari bidaliko zaio, onets dezan.

Arau honetako 15., 17. eta 18. artikuluek aipatzen dituzten aurrekontu orokorren informazio, erreklamazio eta argitarapen eta baliabideei buruzko arauak aplikatuko dira.

Ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak salbuespenezko erregimena ezarri ahal izango du, onesteko eskumena korporazioburuak duelarik, urtean zehar eta metatzeagatik aurrekontuaren %5 baino gehiagoko gehikuntza ez dakarten kreditu gehigarrietarako.

4.- Lazeria handiak edo denon intereseko antzekoak gertatzen direnean, kreditu gehigarriak eman nahi dituzten Toki erakundearen erabakiak berehalaxe betearazi ahal izango dira, beraien aurka eragin litezkeen erreklamazioen kaltetan gabe, beraien aurkeztu eta hurrengo zortzi egunen barruan bururatu behar direlarik, epe horren barruan errekurtsogileari ebazpenik jakinarazten ez zaionetan, gaitziritzizat hartuz.

35. artikulua.- Hitzarmenen araubidea.

1.- Toki erakundeak bere eskumenak hobeto gauzatzeko edo inbertsioari buruzko proiektu zehatzak batera egiteko beste toki erakunde batzuekin, lurralde historikoekin, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioarekin edo Estatuaren Administrazioarekin egiten dituen hitzarmenen ondorioz aurrekontu orokorreko aurrekontuetako batean hasieran aurreikusitako gehigarri diren funtsak jasotzen badira, haiei dagozkien ordainketa-kredituak korporazioburuak behar diren eginkizun egitarauari eta orriari edo horretarako sortzen diren berriei txertatuko dizkie.

Aurreko paragrafoan aipatutako funts gehigarriak toki erakundearen eskumenekoak ez diren proiektuetarako badira, baina betearazpena eskuordetuta badute, aipatutako txertaketak kreditu egokien eta, behar denean, eginkizun egitarauen zehaztapena beharko du, arau honetako 25. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- Aurreko zenbakian aipatu diren hitzarmenak geroagoko ekitaldietarako konpromisoak eskuratzetik badatoz, beraien finantzaketa erakundearen

aurrekontuaren barruko ordainketa kreditu guztien %5 baino handiagoa denean, konpromiso hori eskuratzeko korporazioaren osoko batzaren baimena beharko da.

Aurreko paragrafoan aipatutako baimena lortu ondoren, bai eta korporazioaren osoko batzaren baimenik behar ez duten geroagoko konpromisoak eskuratzen direnean ere, konpromiso-kredituen hurrenez hurreneko eginkizun egitarauari eta orriari txertatuko zaizkie.

36. artikulua.- Aldaketak merkataritza organismo eta sozietate publikoetan gastu mailaren aldakuntzarik gabe.

1.- Toki erakundearen administrazioaren edo beraren organismo autonomoen aurrekontuen kargura transferentziak hartzen dituzten sozietate publikoen aurrekontuetako gastu mailaren aldakuntzarik gabeko aldaketak, transferentzien zenbatekoari eta baimenpeko zorpeketari ez dagozkienean baina muga kredituei dagozkienean, korporazioburuak baimenduko ditu, beti ere ekitaldiko aldaketa metatua erakundearen aurrekontuaren %5 baino handiagoa ez denean. Bestela, baimena korporazioaren osoko batzak eman beharko du.

2.- Merkataritza organismo eta sozietate publikoentzako transferentzia arruntei dagozkien ordainketa-kredituak, toki erakundearen aurrekontu orokorretan daudenak, hartzaileentzat diru-laguntzak izango dira, Galeren eta Irabazien Kontua orekatzeko behar den neurrian. Funts gehiegi eman bada, kopuru hori soberakintzat hartuko da adierazpenik egin gabe, eta, horrenbestez, udal diruzaintzari itzuli beharko zaio.

3.- Korporazioaren osoko batzak, ekitaldirako ezarritako helburuen gauzatze maila ikusita, komeniesten duen zenbatekoan, hasieran merkataritza organismo autonomo eta sozietate publikoei transferitzeko ziren funtsak soberakintzat hartu ahal izango ditu.

4.- Merkataritza organismo autonomo eta sozietate publikoek dituzten funts soberakinak, finantzatu beharko zituzketen helburuak bete ez direlako edo atzeratu direlako jasoak direnean, kontuan hartuko dira, hurrengo ekitaldiko aurrekontuen finantzaketa zehazteko.

VI. Kapituluak.- Aurrekontuen gauzatzea

37. artikulua.- Sarreraren gauzatzea.

Aurrekontu ekitaldian aintzatetsitako eskubideak berari egotziko zaizkio, sortu diren epealdia gorabehera.

38. artikulua.- Sarreraren gauzatzearen faseak.

1.- Sarreraren aurrekontua kudeatzeko fase hauek daude:

a) Eskubidearen aintzatespena.

b) Eskubidearen kobrantza.

2.- Eskubidearen “aintzatespena” sarrera bakoitzari buruzko arautegi bereziaren arabera toki erakundearentzako eskubide bat sortzen duen egintza da.

3.- Eskubidearen “kobrantza” aurretiaz edo aldi berean aintzatetsitako eskubidea ordaintzeko egiten den eragiketa da; hain zuzen ere, Diruzaintzan sartzen da.

39. artikulua.- Gastua gauzatzeko abiaburu orokorrak.

Aurrekontua gauzatzearen araupeketak, gastuei dagokienez, honako abiaburu hauek izango ditu:

a) Jarraiko administrazio kontrolaren abiaburua, prozeduraren egintza osatzaile guztiak, aurretiko eragiketak zuzen bete diren egiaztatu ondoren, gauza daitezten.

b) Prozeduraren eragiketa osatzaile guztien, bai eta frogatu beharreko igorpenen, agiri bidezko frogapenaren abiaburua.

c) Erantzuleek eragiketak beteak dituztela idatziz agertu beharraren abiaburua.

40. artikulua.- Gastuaren gauzatzearen faseak.

1.- Gastuen aurrekontua kudeatzeko fase hauek daude:

a) Gastua egiteko baimena.

b) Gastuaren xedapena edo konpromisoa.

c) Betebeharraren aintzatespena.

d) Gastuaren agindua.

e) Ordainketa.

2.- Gastua “baimentzea” zenbateko finkoa edo gutxi gorabeherakoa duen gastua kreditu jakin baten kargura egitea erabakitzen deneko egintza da; kreditu osoa edo zati bat erabiltzen da horretarako.

3.- Gastua xedatzen edo horretarako konpromisoa hartzen denean, lege ezarritako tramiteak bete ondoren baimendutako gastuak, zenbateko jakinekoak, egitea erabakitzen da.

4.- Betebeharra aintzatesten eta likidatzen denean, baimendu eta konprometatutako gastu baten ondorioz erakundeari eska dakiokkeen kreditua dagoela adierazten da.

5.- Ordainketa agintzen denean, arduradunak ordainketa-agindua ematen du betebeharra aintzatetsita duen toki erakunde baten diruzaintzaren aurka.

41. artikulua.- Eskumenak.

1.- Toki erakundearen administrazioaren aurrekontuetan baimendutako kredituen barruan, gastuak korporazioburuak edo korporazioaren osoko batzak baimendu eta erabiliko ditu, indarreko arategiak ezartzen duen eskumen iratxikipenaren arabera.

2.- Korporazioburuak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

3.- Aurreko idatz zatietan aipatutako ahalmenak deskontzentratu edo eskuordetu ahal izango dira, Toki Erregimenari buruzko Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 23. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta deskontzentrazio edo eskuordetze hori, ekitaldi bakoitzerako, aurrekontua gauzatzeari buruzko arauan bildu beharko da.

4.- Organismo autonomoetan, adierazitako ahalmenak lehen azaldutakoaren arabera erabiliko dira, estatutuek eskumenak eratxikita dituzten organoei dagozkiela.

5.- Toki erakundearen administrazioaren aurrekontuaren eremuan, ordainketa aginduari doazkion eginkizunak korporazioburuari dagozkio; nolahi ere, korporazioaren osoko batzak, haren gorengo agintearen menpean, administrazio eginkizunetan diharduen ordainketa agindurako unitatea sor dezake.

6.- Organismo autonomoen ordainketa agindua estatutuen arabera eratxikita duen organoak emango du.

7.- Ordainketa aginduak diruzaintzaren funtsak erabiltzeko planaren arabera emango dira; plan hori korporazioburuak ezarri behar du eta bertan langileen gastuen eta aurreko ekitaldietan hartutako betebeharren lehentasuna bildu behar dira.

42. artikulua.- Ordainketa aginduen oinarri diren agiriak.

1.- Toki erakundearen administrazioaren eta beraren administrazio organismo autonomoen aurrekontuen kargura ematen diren ordainketa aginduekin batera, hartzekodunak prestazioa egina duela edo zenbatekoa hartzeko eskubidea duela frogatzen duten agiriak erantsi beharko dira, hau guztiau baimena eman eta gastua konprometatzeko oinarri izan ziren kontratu, erabaki eta xedapenen arabera.

2.- Toki erakundearen administrazioaren eta beraren administrazio organismo autonomoen aurrekontuen kargura emandako diru-laguntzen hartzaileek erakundearekiko betebeharrak fiskalak beteta dituztela frogatu beharko dute haiek

hartu aurretik, eta geroago hartutako funtsak nola aplikatu dituzten ere bai.

43. artikulua.- Frogatu beharreko igorpenak.

1.- Ordainketa agindu batekin batera ezin badira aurkeztu bidezko agiriak, aurreko artikuluan adierazitakoak, "frogatu beharrekoa" izango da eta aurrekontu kreditu egokiei aplikatuko zaie.

2.- Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak gastuen aurrekontuen kargura frogatu beharreko ordainketa aginduen luzapenari buruzko arautegia ezarri ahal izango du, irizpide orokorrak, zenbatekoen aldeko mugak eta aurrekontuetako kontzeptu aplikatu gaiak zehaztuz.

Ordainketa agindu horien hartzaileek jasotako kopuruak nola aplikatu dituzten frogatu beharko dute hiru hilabete igaro aurretik eta, beti ere, ekitaldia itxi aurretik; indarreko arautegiak ezartzen duen erantzukizunen araubidearen menpean egongo dira.

Aurrekontuetako kontzeptu berdinentatik, frogatu gabeko funtsak dituzten hartzaileei ezin zaie inola ere "frogatu beharreko" beste ordainketa agindurik luzatu.

3.- Aldizkako edo lantzean behingo arretetarako, igorri eta frogatu beharreko funtsak kutxa finkoko aurrerakinak izan daitezke. Funts hauen hartzaileek aurrerakina eratua den aurrekontu ekitaldian zehar hartutako kopuruen aplikazioa frogatu beharko dute.

44. artikulua.- Kredituak itxieran baliorik gabe uztea.

1.- Toki erakundearen administrazioaren eta beraren administrazio organismo autonomoen aurrekontuetako ordainketa-kredituak aurrekontu ekitaldiko azken egunean, sortutako betebeharretarako xedatutako ez badaude, zuzenbide osoz balio gabetuko dira, bakoitzaren jarraiko ekitaldiko aurrekontuari txertatzen zaizkionean izan ezik, arau honetako 32. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- Halaber, aurrekontu ekitaldiko azken egunean erabili gabe dauden konpromiso-kredituak baliorik gabe utziko dira, arau honetako 32. artikuluan xedatutakoa izan ezik.

45. artikulua.- Erantzukizunak.

Gastu eta ordainketen agintzaileek eurek, beti, eta toki erakundeetako kontuhartzaileek idatziz bidegabeak direla ohartarazten ez badute, baimentzen dituzten gastuen erantzukizuna izango dute, bai eta nahikoa krediturik ez dagoela aintzatetsi, likidatu edo ordaintzen dituzten betebeharrentatik ere.

VII. Kapituluak.- Aurrekontuen likidazioa

46. artikulua. Itxiera eguna.

Ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharreri dagokienez.

47. artikulua.- Agiriak.

Arau honetako 1. artikuluan aipatutako erakundeek ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aurkeztu behar dute; likidazioan agiri hauek egon behar dira:

1. Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa; hona osagaiak:
 - Laburpen-kontuak.
 - Aribideko ekitaldiko sarreraren orria.
 - Ordainketa-kredituen gastuen orria.
 - Konpromiso-kredituen gastuen orria.
2. Itxitako aurrekontuen aldakuntzen orria; ekitaldian kobratzeko eskubideetan eta ordaintzeko betebeharretan izan direnak adierazi behar dira.
3. Aurrekonturik kanpoko zordunen eta hartzekodunen saldoen orria, aplikatu gabeko ordainketak eta sarrerak barne direla.
4. Ekitaldian ixtean dauden bidegabeko sarreraren itzulketaren ondoriozko hartzekodunen guztirako saldoa.
5. Ekitaldiko diruzaintzaren kontua.
6. Funts-kontaktaren akta; bertan kontuetako funtsen eta haien berdinkatzeen gauzapena agertu behar da.
7. Likidatu den ekitaldiaren hurrengo ekitaldian kobratzen gaitz edo ezinezkoa izango den kobratu gabeko zorren analisia.
8. Sarrerak loturik dituzten gastuen finantzaketan izandako desbideraketen analisia.
9. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza; likidatu den aurrekontuarena eta itxitako aurrekontuena bereizi behar dira.
10. Diruzaintzaren gerakina ekitaldia ixtean.

48. artikulua.- Definizioak.

1.- Ekitaldiko indarreko aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza ekitaldian zehar aintzatetsitako eskubideen eta aldi berean zehar aintzatetsitako betebeharren arteko kendura izango da.

Likidatutako eskubideak beraien balio garbietan hartu beharko dira, hots, edozergatik baliogabetu diren eskubideak kendu ondoren. Halaber, aintzatetsitako betebeharrak ere hartuko dira beraien balio garbietan, edozergatik baliogabetu diren betebeharrak kendu ondoren.

2.- Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetako eragiketen ziozko emaitza ekitaldian zehar baliogabetuta eta kobratu gabe dauden eskubideen zenbatekoaren eta ekitaldian zehar baliogabetu eta ordaindu ez diren

betebeharrenaren arteko kendura izango da.

3.- Ekitaldiko aurrekontu-emaizta aurreko 1. eta 2. idatz zatietan aipatutako kopuruen batura izango da.

4.- Arrekontu-emaizta, behar denean, diruzaintzaren gerakinez finantzatutako betebeharren eta gastuei lotutako finantza baliabideen ziozko diferentzien arabera doitu beharko da.

5.- Diruzaintzaren gerakina funts likidoek gehi kobratu gabeko eskubideek ken ordaindu gabeko betebeharrek osatua izango da, horiek guztiak ekitaldiko abenduaren 31koak izanik.

6.- Honela kalkulaturiko diruzaintzako gerakinetik kobraezintzat edo kobragaitzat hartzen diren kobratu gabeko eskubideak kenduko dira; kobratu gabeko eskubide horien zenbatekoa bai banan-banan bai goren mugako portzentaje bat finkatuz zehaztu ahal izango dira.

Eskubide kobragaitzak edo kobraezinak zehazteko, zorren antzintasuna, beren zenbatekoa, harako sarrera mota, hala borondatezko epealdiko nola betearazpideko bilketaren portzentajeak eta toki erakundeak ezarriko dituen balioztapide zuhurrak ere hartu beharko dira kontuan. Dena dela, behar bezala aintzatetsi eta kontuetan hartu eta 24 hilabete baino gehiagoko antzintasuna duten eskubideak kobragaitzat edo kobraezintzat hartuko dira, behar bezala bermatuta egon eta likidatu eta jarraiko ekitaldian kobratzea aurreikusten denean izan ezik, orduan ez baitira eskubide horiek kendu beharko.

Eskubide bat kobragaitza edo kobraezina dela pentsatzen bada ere, kontuetan ez da berez inoiz baliogabetuko.

7.- Diruzaintzako gerakinak, behar denean, gastuei lotutako finantza baliabideak daudenean doitu beharko dira.

8.- Diruzaintzako gerakina inolaz ere ezin da izan hasierako aurreikuspenen osagaia eta ondorioz ezin erabili izango da gastuen aurrekontuko hasierako kredituak finantzatzeko.

49. artikulua.- Onespena eta ondorengo tramiteak.

1.- Toki erakundeek aurrekontu orokorren likidazioari buruzko agiriak hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen prestatu behar dituzte.

2.- Aurreko epigrafean aipatutako eguna sozietate publikoei aplikatu ahal zaien arautegian ezarritako epeen kalterik gabe ulertu behar da.

3.- Aurrekontu orokorren likidazioa toki erakundeko buruak onetsiko du, kontuhartzaitzak txostena eman ondoren, eta gero osoko batzari emango

zaio haren berri.

4.- Aurrekontua likidatzen denean diruzaintzako gerakina negatiboa bada, korporazioaren osoko batzak, egiten duen lehenengo bilkuran, aurrekontu berriko gastuetan mentsaren kopurua kendu behar du.

Gastuak ezin txikitu badira, kreditu eragiketa bat kontzertatu ahal izango da, haren zenbatekoan, beti ere arau honetako 34. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen badira.

Aurreko idatz zatietan aurreikusitako neurrietarik bat ere hartzen ez bada, hurrengo ekitaldiko aurrekontua ments hori baino txikiagoa ez den zenbatekoko superabitarekin onetsi beharko da.

5.- Toki erakundeek beren aurrekontuen likidazioaren kopia bidaliko diote Foru Aldundiari onetsi eta hilabete igaro aurretik. Gero Foru Aldundiak administrazio eskudunei bidaliko die.

VIII. Kapituluak.- Aurrekontuen luzamendua

50. artikulua.- Luzamenduaren araubidea.

1.- Ekitaldi bateko aurrekontu orokorra hura hasten denerako indarrean ez badago, aurreko ekitaldikoa luzatutzat joko da berez.

2.- Ezarritako arautegiaren arabera luzatzen diren kredituen zenbatekoak amaitutako azken ekitaldi ekonomikoko azken egunean onetsitakoak balira legez ulertuko dira, hots, ekitaldi horretan baimendutako transferentzia, zabalkuntza eta gainerako aldaketak konputatu ondoren.

3.- Aurreko ekitaldian amaitu beharreko edo ekitaldi horretan bakarrik hartuko ziren kredituez edo beste sarrera berezi edo ukituez finantzatu beharreko zerbitzuetarako edo eginkizun egitarauetarako kredituak ezin izango dira inoiz luzagarritzat hartu.

4.- Konpromiso-kredituak berez sartuko dira luzatutako aurrekontuan.

5.- Luzamenduaren epealdian zehar, kredituen transferentzia, gaikuntza eta gainerako aurrekontu aldaketen araubideak arau honetan dagoen arautegiaren menpean egongo dira.

6.- Aurreko paragrafoetan ezarritako araubidea gorabehera, korporazioaren osoko batzak, ekitaldi ekonomiko berriko lehenengo egunetik aurrera, bere zerbitzupeko langileen ordainketak gehitu ahal izango ditu, luzatu den ekitaldian baimendutako zenbatekoaz berdina den gehieneko eta behin behineko portzentajea, banan-banan aplikatuta.

7. - Aurrekontu luzapena hasi zenetik hiru hilabete baino gehiagoko epea igarotzen bada, Toki Erakundeko presidenteak, aipatutako epea amaitu eta hurrengo zazpi egunetan, korporazioko Osoko Bilkuran ekitaldi horretarako aurrekontua aurkeztu beharko du, aurreko ataletan finkatutako zuzentze-eragiketak burutu ondoren. [\(Apirilaren 16ko 5/2012 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 47 zk. 2012 apirilaren 25ko\)](#)

8. Aurreko idatz-zatian jasotako aldi baterako aurreikuspena betetzen ez bada, eta aurrekontu luzapenaren hasieratik sei hilabete igarota, Arabako Foru Aldundiak Toki Erakundeari zerga itunduen partaidetzagatik dagozkion kopuruak atxikiko dizkio Toki Erakunde horrek aurrekontuak aurkeztu eta onetsi arte. [\(Apirilaren 16ko 5/2012 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 47 zk. 2012 apirilaren 25ko\)](#)

9.- Osoko Bilkurak modu horretara egindako aurrekontua onesten badu, ekitaldiko aurrekontu arrunta bihurtuko da. Hala ez bada, hamabost eguneko epea irekiko da aurkeztutako proiektuari zuzenketak aurkezteko. Ezingo da proiektua bertan behera utzi. Zuzenketak Osoko Bilkuran bozkatu beharko dira, zuzenketak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean. [\(Apirilaren 16ko 5/2012 Foru Arauak gehitu zaio. ALHAOko 47 zk, 2012 apirilaren 25ko\)](#)

10. Luzapena amaituta, behin betiko aurrekontuak onestutzat hartuko dira eta eraginak izango dituzte urtarrilaren 1etik; bertan jasotako kredituak, hasierako kreditutzat hartuko dira. [\(Apirilaren 16ko 5/2012 Foru Arauak gehitu zaio. ALHAOko 47 zk, 2012 apirilaren 25ko\)](#)

11. Ekitaldi berrirako Aurrekontu Orokorrek, luzapenaren araubideak baimendutako kredituren bat jasotzen ez badute, edo zenbateko txikiagoa jasotzen badute, dagokion zenbatekoa bertan behera utziko da eragindako programa funtzionalaren kargura, eta hori ezin bada egin, Udalbatzako Osoko Bilkurak erabakiko du nola egin egokia den doikuntza. [\(Apirilaren 16ko 5/2012 Foru Arauak gehitu zaio. ALHAOko 47 zk, 2012 apirilaren 25ko\)](#)

II. TITULUA - DIRUZAINITZA

51. artikulua.- Definizioa eta aplikazio eremua.

1. Toki erakundearen administrazioaren diruzaintzak finantza baliabide guztiak ditu, dirua, balioak zein erakundearen kredituak, aurrekontu eragiketen ziozkoak nola aurrekontuz kanpoko ziozkoak.

2. Titulu honetako manuak organismo autonomoei ere aplikatuko zaizkie.

52. artikulua.- Kontrola.

Diruzaintzaren erabilpenak eta beraren aldaketak kontuhartze-kontrolaren eta kontabilitate publikoaren erregimenaren menpean daude.

53. artikulua.- Eginkizunak.

Hauexek dira toki erakundeetako diruzaintzaren eginkizunak:

- a) Eskubideak biltzea eta betebeharrak ordaintzea.
- b) Kutxa batasunaren abiaburua betetzea, aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko eragiketen ziozko funts eta balio guztiak zentralizatuz.
- c) Baliagarri dagoen dirua denboran zehar banatzea betebeharrak behar denean betetzeko.
- d) Toki erakundeak konprometitutako abalen erantzule izatea.
- e) Aurrean zerrendatutakoetatik sortzen diren edo haiekin zerikusia duten guztiak.

54. artikulua.- Funtsen egoera.

1.- Toki erakundeek euren diruzaintzaren finantza zerbitzuak itundu ahal izango dituzte kreditu eta aurrezki erakundeekin; horretarako honako kontu mota hauek irekiko dituzte:

- a) Sarrera eta gastuen eragiketa-kontuak.
- b) Bilketarako murriztutako kontuak.
- b) Ordainketetarako murriztutako kontuak.
- d) Gordailu eta fidantzen kontuak.
- e) Diruzaintzako soberakinak ezartzeko finantza kontuak.

2.- Halaber, toki erakundeek baimena eman ahal izango dute kutxetan eskudirua egon dadin eguneroko eragiketetarako; kutxa horiek arauz ezartzen diren mugak izango dituzte.

3.- Toki erakundearen administrazioaren eta beraren administrazio organismo autonomoen funts guztiak 1. eta 2. idatz zatietan aipatutako kontuetan edo kutxetan kokatuko dira.

4.- Arau honen ondoretarako, gordailutzat joko dira fidantza, berme, zainpeketa eta antzeko eragiketetarako funtsak eta balioak, baldin eta eragiketa horien jasotzaileak hauek badira:

- a) Toki erakundearen edo beraren administrazio organismo autonomoen administrazioa.
- b) Beste erakunde publiko edo norbanako batzuk, beti ere, indarreko antolamendu juridikoaren arabera, toki erakundeen zaintzapean jarri behar direnean.

5.- Gordailutzat hartzen diren funtsak toki erakundeko diruzaintzako gainerako

funtsetatik aparteko kontuetan jarri ahal izango dira, hain zuzen ere 1.d) idatz zatian aipatutakoetan.

6.- Kontuen izena “.....(e)ko toki erakundeko diruzaintza” izango da; behar denean kontuaren edukia zehazten duen adierazpenen bat erantsi ahal izango da.

55. artikulua.- Sarrera egiteko moduak eta ordainerak.

1.- Toki erakundeek erregela bereziak eman ahal izango dituzte euren baliabideen bilketaren emaitzako sartzeko; sarrerak eskudiru kutxetan edo kreditu erakunde laguntzaileetan egin daitezke eskudirutan, transferentzia bidez, txekez edo ezartzen den beste edozein ordaineraz baliatuz.

2.- Toki erakundeek euren betebeharrak ere aurreko idatz zatian aipatutako ordaineretako bat erabiliz ordaindu ahal izango dituzte.

56. artikulua.- Diruzaintzako eragiketak.

1.- Toki erakundeek urtebetetik beherako epeko diruzaintzako eragiketak kontzertatu ahal izango dituzte era guztietako finantza erakundeekin euren ordainketa eta sarreraren mugaegunen diferentzietatik sortzen diren aldi baterako likidezia mentsak estaltzeko, Toki Ogasunei buruzko uztailaren 19eko 41/1989 Foru Arauko 51 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

2.- Toki erakundeek euren diruzaintzaren aldi baterako soberakinei etekinak atera ahal izango dizkiete likidezia eta segurtasuna bateratzen dituzten inbertsioak eginez.

57. artikulua.- Eskumenak.

1.- Korporazioburuak eta organismo autonomoetako buruek eta zuzendariak funts eta balioen egoera, eskubideen bilketa, betebeharren ordainketa eta, esangura zabalenean, toki erakundeetako diruzaintzaren berenezko gainerako arloei doazkien eskumen guztiak erabili ahal izango dituzte, arau honetan xedatutakoarekin bat etorritz.

2.- Kontuak ireki eta ixteko xedapena, beraien mugimendua eta kasuan kasuko egingarritasunaren zehaztapena, arau honetan aurreikusitakoaren arabera, korporazioburuari dagozkio, edo berak ezartzen diren baldintzei lotuz horretarako izendatzen duenari.

3.- Funtsak erabiltzeko, erakundeko buruaren, udal diruzaintzaren arduradunaren eta kontuhartzailearen baterako sinadura beharko da, 67.2.c artikuluan xedatutakoari kalte egin gabe.

4.- Eskudiru kutxak ireki eta ixteko xedapena, kasuan kasuko

egingarritasunaren zehaztapena eta haien mugimenduaren arduradunaren edo arduradunen izendapena egiteko, korporazioburuak eman beharko du baimena.

58. artikulua.- Diruzaintzako erregistroa.

Toki erakundeek diruzaintzako erregistroa eduki beharko dute. Bertan toki erakundean dauden kontu eta kutxa guztiak agertu beharko dira; datu hauek eman behar dira:

- a) Kontu edo kutxa mota.
- b) Izena.
- c) Titulartasuna.
- d) Finkamendua eta identifikazioa. Kontua denean, beraren zenbakia eta banku erakundea, finantza erakundea edo kreditu erakundea, kasuan kasukoa.
- e) Zaintzaren arduradunak.
- f) Mugimenduaren arduradunak.
- g) Kontuei edo kutxei buruz eman diren ebazpenak.
- h) Organo eskuduna ezartzen dituen guztiak.

III. TITULUA - KONTABILITATEA

59. artikulua.- Aplikatu daitezkeen araubidea.

1.- Toki erakundearen administrazioa eta beraren organismo autonomo eta sozietate publikoak kontabilitate publikoaren araubidearen menpean daude, arau honetan ezarritakoaren arabera.

2.- Kontabilitate publikoaren araubidearen menpean egoteak berekin dakar eragiketa guztien berri eman beharra Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari.

60. artikulua.- Kontabilitatearen helburuak.

Toki erakundearen kontabilitatea helburu hauek betetzeko antolatuta dago:

- a) Toki erakundearen balantzea ezartzea, beraren ondarearen osaketa eta egoera, bai eta haren aldaketak ere, agerian jarritz.
- b) Emaitzak zehaztea ekonomiaren eta ondarearen ikuspegitik.
- c) Analisisietako emaitzak zehaztea, zerbitzuen kostu eta etekina agerian jartzeko.
- d) Erakundearen aurrekontu orokorraren gauzatzea erregistratzea, aurrekontu emaitzak agerian jarritz.
- e) Toki erakundearen diruzaintzaren mugimenduak eta egoera erregistratzea.
- f) Erakundearen kontu orokorra, bai eta bidezko ondoreetarako gertutu behar diren kontu, orri eta agiriak osatzeko behar diren datuak ematea.
- g) Euskal Herriko Arlo Publikoaren kontu ekonomikoak egiteko behar diren datuak eta aurrekinak eskaintzea.

- h) Ekonomia-finantzeko estatistikak gertutzeko behar den informazioa ematea.
- i) Hala politikari doakionez, nola kudeaketari doakionez, erabakiak hartzeko behar den ekonomiaren eta finantzen arloko informazioa ematea.
- j) Legezko kontrola, eraginkortasun eta efizientziaren kontrola, finantzen kontrola eta antolaketaren kontrola ahalbidetzea.
- k) Ibilgetu materialaren, ezmaterialaren eta finantza ibilgetuaren inbentarioa eta kontrola, zorpeketaren kontrola eta toki erakundearekin harremanak dituzten interesatuen zor edo hartzeko egoeraren banan-banakako jarraipena ahalbidetzea.

61. artikulua.- Kontabilitatearen indarraldia.

Kontabilitate-ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin.

62. artikulua.- Urteko orriak eta kontuak.

1.- Toki erakundeek, kontabilitate-ekitaldia amaitutakoan, Kontu Orokorra egin behar dute; bertan ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketen berri agertu behar dute. Osagai hauek izan behar ditu:

- a) Egoeraren Balantzea.
- b) Galera eta Irabazien Kontua.
- c) Memoria; honek atal hauek izan behar ditu:
 - 1. Finantzaketa-taula.
 - 2. Zorraren egoera.
 - 3. Informazio-eranskina; hemen aurrekontuaren likidazioa eta Kontabilitate Orokorra erlazionatu behar dira.
- d) Aurrekontuaren likidazioa.

2.- Urteko orriek eranskin hauek izan behar dituzte:

- 1. Egiaztapenaren balantzea.
- 2. Kreditu-aldaketen egoera-orria.
- 3. Balioen egoeraren eta mugimenduen orria.

63. artikulua.- Gertutu eta onesteko prozedura.

1.- Toki erakundearen urteko orri eta kontuen berri hurrengo ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen emango du erakundeko buruak. Organismo autonomo eta sozietate publikoenak, organo eskudunek behin-behinean aurkeztu eta onesteko proposatu ondoren, toki erakundeari bidaliko zaizkio aurreko epe berean.

2.- Korporazioburuak gertututako Kontu Orokorra maiatzaren 15a baino lehen jarri behar da toki erakundeko kontuen batzorde bereziaren onespenerako.

3.- Kontu Orokorra, aurreko idatz zatian aipatutako batzorde bereziaren txostenarekin batera, jendaurrera azalduko da 15 egunetan; epealdi horretan interesatuek erreklamazioak, ingerak zein oharrak aurkeztu ahal izango dituzte. Batzorde bereziak aztertu egingo ditu eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ondoren, beste txosten bat emango du.

4.- Batzorde bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta ingerekin batera, Kontu Orokorra korporazioaren osoko batzaren onespenerako jarriko da, eta bidezkoa bada uztailaren 31 baino lehen onetsiko da.

5.- Toki erakundeek behar bezala onetsitako Kontu Publikoaren berri emango dio Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

64. artikulua.- Informazioa.

Hiru hilean behin, gutxienez, toki erakundeko buruak ordu artean igarotako epealdiari dagokion finantza eta aurrekontuen arloko informazioa bidaliko dio korporazioaren osoko batzari, honek zehazten duen egiturarekin.

IV. TITULUA - KONTUHARTZE-KONTROLA

65. artikulua.- Definizioa.

Kontuhartze-kontrola toki erakundeak bere jarduera ekonomikoaren eta bere menpeko erakundeenaren gainean ezartzen duen barru kontrola da; kontrol hori titulu honetan ezarritakoaren arabera burutuko da.

66. artikulua.- Kontrolaren helburuak eta kontrol-moduak.

1.- Lortu nahi diren helburuen arabera, kontrola honelakoa izango da:

- a) Legezketasunaren kontrola, jarduketa ekonomikoak indarreko arautegiaren araberrakoak diren egiaztatzeko.
- b) Eraginkortasunaren eta efizientziaren kontrol ekonomikoa, jarduketan ekonomia moldaketa hala egitaraupeko ekintza eta helburuen ikuspegitik, nola prozesuari datxekion kostuaren ikuspegitik aztertzeko.
- c) Finantzen kontrola, finantzen eta kontabilitatearen arloko informazioaren fidagarritasuna eta informazio hori identifikatu, ebaluatu, sailkatu eta jakinarazteko erabilitako eskuartearen fidagarritasuna eta osotasuna aztertzeko.
- d) Antolaketaren kontrola; eragiketa ekonomikoei doazkien antolaketa eta administrazio sistemen egokitasuna, bereziki, toki erakundearen aktiboen babesa balioztatu eta toki erakundearen organo eta erakundeen sorkuntza eta ezabaketa, bai eta beren berregituraketak fiskalizatuz, beraien zerbitzuen kostu eta etekinen egoera, bilakaera eta aldaketa ebaluatzeko.

2. Kontrola noiz egiten den arabera, kontrola a priori (egintza baino lehen) edo a posteriori (egin ondoren) izan daiteke.

67. artikulua.- Legezketasunaren kontrola.

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

- a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo balioen funtsak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.
- b) Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.
- c) Ordainketaren kontuhartze materiala. Osoko batzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako funtsen erabilpenerako amankomunatu erantsiko zaie.
- d) Inbertsioen eta diru-laguntzen aplikazioaren kontuhartze eta egiaztapen materiala.

68. artikulua.- Eraginkortasunaren eta efizientziaren kontrol ekonomikoa.

Eraginkortasunaren eta efizientziaren kontrol ekonomikoa aurreko artikuluko 1. idatz zatian aipatutako egintzen gainean egingo da eta, egitaraupeko ekintzei eta lortu nahi diren helburuei begira, honako hauek eskuhartuko ditu:

- a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo balioen funtsak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.
- b) Egintza horiek a posteriori kontrolatzea eta, bereziki, ekintzak eta helburuak zenbatzea aurrekontu-egitarauen eremuan.

69. artikulua.- Finantzen kontrola.

Finantzen kontrola finantza-auditoretzaren bitartez egingo da, arlo publikoaren auditoretzari buruzko arauekin bat etorritik.

70. artikulua.- Ingerak.

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

2.- Toki erakundeen edo beraren organismo autonomoen aldeko eskubideen aintzatespenarekin edo likidazioarekin ados ez badago, aurkarapena ingera orrian egingo da, eta horrek ez du inolaz ere etengo espedientearen izapidetza.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

- a) Oinarria kredituaren askiezintasunean edo proposatutakoaren ezegokitasunean datzanean.
- b) Ordainketa-aginduak sortu dituzten egintzak fiskalizatu ez direnean.
- c) Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.
- d) Ingera obra, hornidura, eskuraketa eta zerbitzuen egiaztapen materialetatik sortzen denean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, korporazioburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

5.- Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, ingerak honelakoak direnean korporazioaren osoko batzak ebatzi beharko du eztabaida:

- a) Kredituaren askiezintasunaren edo ezegokitasunaren ondoriozkoak.
- b) Berak onetsi behar dituen betebeharrei edo gastuei dagozkienak.

71. artikulua.- Fiskalizazio mugatua.

1.- Inbentariopean ez dauden materialaren gastuen eta kontratu txikien konturik ez da aurretiaz hartuko, ez eta aldian behingoena eta segidako traktuko guztiena ere, egintza edo kontratu sortzailearen edo bere aldaketen hasierako epealdiko gastuaren kontu hartu ondoren.

2.- Korporazioaren osoko batzak, korporazioburuak proposatuta eta kontuhartzailletza- organoak txostena eman ondoren, aurretiazko kontuhartzeak honako hauek soilik egiaztatzea erabaki ahal izango du:

- a) Aurrekontu kreditua dagoen eta proposatutakoa hartu nahi den gastuaren edo betebeharraren izaeraren arabera den egiaztatzea.
- b) Betebeharrak edo gastuak eskudun organoak sortuak diren egiaztatzea.
- c) Osoko batzak zehazten dituen gainerako edukiak egiaztatzea, beti ere kudeapidean duten eraginagatik denean.

Kontuhartzailletza-organoak komeniesten dituen ohar osagarriak azaldu ahal izango ditu; horiek ez dute inolaz ere etengo espedienteen tramitazioa.

3.- Artikulu honetako 2. zenbakiak aipatu duen fiskalizazio mugatuaren menpeko betebeharrak edo gastuak ezin izango dira geroago osorik fiskalizatu,

fiskalizazio hori sortarazi zuten egintzak, agiriak edo espedienteak ordezkatzeko dituen laginketa baten gainean laginketa edo auditoriako teknikak aplikatuz erabilia, beti ere kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera diren begiztatu eta kredituen kudeaketan legezotasuna noraino bete den zehazteko denean.

4.- Toki erakundeek, osoko batzaren erabaki baten bitartez, eskubideen aurretzako fiskalizazioaren ordezkari, kontabilitatea egiteari doakiona eta laginketa edo, auditoriako teknikak erabiliz, geroagoko egiaztapenak jar daitezkeen, erabaki ahal izango dute.

72. artikulua.- A posteriori kontrolak.

Titulu honetan deskribatutako ikuspegiaren batetik a posteriori kontrola egin ondoren idatzizko txostena eman beharko da eta bertan azterketaren ondorioak eta oharrak agertarazi.

Txostenak, eta haiekin batera kontrolpeko eginkizunen ardura duten organoen alegazioak, korporazioburuari bidaliko zaizkio, azter ditzan.

73. artikulua.- Organismoen eta sozietateen kontrola.

1.- Merkataritza organismo autonomoak kontuhartze-kontrolaren menpean daude, merkataritza trafikoko eragiketen berenezko ekonomia edukiko egintzen aurretzako fiskalizazioa izan ezik.

2.- Sozietate publikoak ez daude beraien egintzen aurretzako fiskalizazioaren menpean eta haietan kontuhartze-kontrola a posteriori kontrolen bitartez egingo da, titulu honetan aipatutako perspektiba guztietatik eta auditoretzaren bitartez.

74. artikulua.- Onurabideak.

Erakundeak kontuhartze-kontrola erabil dezan, beharrezkoesten diren aurrekinak eskatu ahal izan, premia-koosten diren liburu, kontu eta agiriak aztertu eta egiaztatu, kontaketa eta zenbaketak begiztatu eta eskudunari, kontuhartu behar den egintzaren, agiriaren edo espedientearen izaerak behar duenean, beharrezkoesten diren teknikarien txostenak eta aholkularitza eskatzea kontrol hari datxezkiola ulertuko da.

Kontuhartzaitza-organo eskudunak eta kontuhartze-kontrolaren ardura duten funtzionarioek ere euren eginkizuna erabiliko dute, fiskalizatzen duten jarduketadun organoei begira independentzia osoa dutela.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.- Kontzejuak eta udalerriaz azpiko eremuko erakundeak.

Kontzejuak eta udalerriaz azpiko eremuko beste edozein erakundek arau honetako abiaburuetara moldatuko dute euren aurrekontu araubidea; hori dela eta, Foru Aldundiari baimena eman zaio haiek euren araubidea errazteko egin

behar dituzten moldaketak onesteko.

Bigarrena.- 5.000 biztanle baino gutxiago dauden udalerriak.

Arabako Foru Aldundiak arau hau aplikatzeko araubide erraztua eman ahal izango du 5.000 biztanle baino gutxiago dauden udalerrietarako, beti ere hemen ezarritako abiaburuak errespetatzen dituela.

Hirugarrena.- Arau eskumena.

Foru Aldundiari baimena eman zaio Foru Arau honetan ezarritako manua arauz garatzeko, aurretik Lurralde Historikoan ezarpen handiena duten Udalerri eta Kontzejuen Elkarteek txostena egingo dute.

Laugarrena. [\(Apirilaren 16ko 5/2012 Foru Arauak gehitu zaio. ALHAOko 47 zk, 2012 apirilaren 25ko\)](#)

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek toki administrazioan eskumena duen foru sailera bidaliko dute ondoko dokumentazioa:

- a) Urte bakoitzaren hasierako hiruhilekoan, aurreko urtearen amaieran zuten zor bizia, baita aurrekontu-ekitaldirako aurreikusten den finantza-zama ere.
- b) Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena urte bakoitzaren lehen lauhilekoan, Arabako Toki Erakundearen Finantzaketarako Foru Funtsa arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauaren 15.3 artikulua xedatutakoarekin bat etorriz.
- c) Urterako Aurrekontu Orokorra hilabeteko epean, Korporazioaren Osoko Bilkurak behin betiko onesten duenetik.
- d) Urtearen urriaren 31 baino lehen, aurreko urteko Kontu Orokorra.

Bosgarrena. [\(Apirilaren 16ko 5/2012 Foru Arauak gehitu zaio. ALHAOko 47 zk, 2012 apirilaren 25ko\)](#)

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeak, duen aurrekontu eta finantza egoera dela-eta, Arabako Foru Aldundiari bideragarritasun plana eskatzen badio, bai oinarrizko zerbitzu publikoekin ohiko moduan jarraitu ahal izateko, bai finantza-zama ordaintzeko, toki administrazioan eskumena duen foru sailak, Toki Erakundearekin batera, aurrekontu eta finantza bideragarritasunaren inguruko berezko plan bat egingo du.

Toki Erakundeko Osoko Bilkurak onetsi beharko du aipatutako plana, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde Kontseiluaren txostena beharko da eta Biltzar Nagusietara foru arau proiektu gisa bidali beharko da hantxe behin betiko onesteko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengoa

2004ko aurrekontua Foru Arau hau onartu baino lehen onetsi duten Toki

Entitateek, Aurrekontua Gauzatzeko Araua hemen jasotako aurreikuspenetara egokitu dezakete, Osoko Bilkuran hartutako erabaki baten bidez.

Bigarrena

Foru Arau hau indarrean sartzeko den egunean oraindik 2004ko ekitaldiko aurrekontuak egiten ari diren Toki Entitateek, arau honetan jasotako aurreikuspenetara egokitu beharko dute aurrekontu horren onespena, gauzapena eta likidazioa.

AZKEN XEDAPENA

Foru arau hau Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.